

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Guk bezeroekiko harreman **pertsonalak** eta **urrunekoak** izango ditugu. Harreman pertsonalak dendan bertan sustatuko ditugu, bezeroek gurekin aurpegiz-aurpegi hitz egin beharko dute edota telefonoaren bidez. Urruneko harremanak aldiz, aurrerakuntza teknologikoen bidez edukiko ditugu, e-maila, mezuak, eskutitzak etb.

Webgunetik eta **sare sozialetatik** aukerak edukiko dituzte ere guri idazteko eta haien kezak, eskaerak eta bestelakoak guri transmititzeko.

Gure markak bezeroei gogora ekar diezaiokete ondo eta estiloarekin janztea eta eroso egotea aldi berean posiblea dela.

Bezeroen harremana guk lantzen ditugu eta denboraldi berriak daudenean harreman berri gehiago egiten saiatuko gara. Eskaintzak asko areagotuko direnez, bezeroekiko **ardura handiagoa** izan behar da gehiago izango direlako. Langile bakoitzak pertsonalki bezeroekiko harreman horietaz arduratu beharko da, haiengan errespetua eta interesa erakusteko.

Bezeroak hainbat eratan eskuratuko ditugu. Hasteko, gure **dendara** sartzen diren bezeroei interes handiz arreta emango diegu horrela gure dendara berriro itzultzeko gogoia piztuko diegu. Gainera, **sare sozialak** erabiliz hitz egiten diguten bezeroei azkar erantzuten saiatuko gara eta gure erantzunak ahalik eta osatuenak eta koherenteenak izango dira haiek berriro idatz dezaten.

Gure **bezeroekiko fidelizazio modua** haien harreman sendoa sortzea izango da. Lehenik, saiatuko gara haiekin harreman estua izaten eta haien arazoei aurre egiten gure salmentaren bidez. Bigarrenik, gure bezeroen batek ez badu gure lana gustuko edota ez bazaio proposamen praktiko bat iruditzen gure produktua gustatu haien arrazoia ikertuko ditugu eta hobekuntzak egiten saiatuko gara, bezero gehienak gure produktua gustukoa izateko.

Aholkularitza-zerbitzua dendan bertan edukiko dugu, hau da, hasiera batean gu lauetako langile bat egongo da dendan bezeroei haien gustukoak diren zapakoiak aurkitzeko eta frogatzeko. Guk lagunduko diegu aukeratzen eta haien estiloarekin konbinatuko ditugu diseinuak.

